**EBAZPENA**

Julián Ríos Santiago jauna, 1. Alkateordea eta Hiritarrak arloko zinegotzi delegatua, horrela agintzen baitu Alkate andreak dekretu bidez onartutako ordezkaritzak (1424 dekretua, 2019ko ekainaren 27koa; BAOn argitaratua 2019/07/11ko 132. zenbakian), honakoa erabaki du 418/2021/DL espedienteari buruz:

Aztertu ondoren hitzarmena sinatzeko informe teknikoa, eta aintzat harturik Durangoko Udalaren dirulaguntzak eta bestelako laguntzak arautzen dituen Ordenantza nagusia eta dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege orokorra.

**E R A B A K I D U T**

1. Hitzarmena sinatzea Durangoko Udalaren eta ASOCIACION AKANA elkartearen artean, honako testu honekin:

**DURANGOKO UDALAREN ETA "AKANA" – KOMUNITATE ZERBITZU ELKARTEAREN ARTEAN IZENPETUTAKO HITZARMENA**

**BILDURIK**: Batetik, JULIAN RIOS SANTIAGO, jauna, NAN 30.662.165-Z, DURANGOKO UDALEKO alkateordea, eta ekintzaren fede ematen duen Idazkari Nagusi TERESA OLEAGA LARRINAGA andreak lagundurik, NAN 30.616.524-M.

Eta, bestetik, AKANA ELKARTEA -KOMUNITATE ZERBIZTUA RICARDO ALZAGA VIZCARRA jauna ordezkari delarik, 15391695-A zenbakiarekin, elkartearen presidente moduan.

**DIHARDUTE**: JULIÁN RÍOS SANTIAGO jaunak,

**RESOLUCIÓN**

El 1er Teniente de Alcalde don Julián Ríos Santiago, concejal delegado del área de Ciudadanía en virtud de las delegaciones acordadas por la Alcaldesa mediante decreto nº 1424 de fecha 27 de junio de 2019, publicado en el «BOB» número 132 de 11 de julio de 2019, ha dispuesto con relación al expediente 418/2021/DL lo siguiente:

Visto el informe técnico justificativo de la procedencia de la firma de un Convenio, de acuerdo con lo indicado en la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Durango y en la Ley 38/2003 General de Subvenciones.

**HE RESUELTO**

1. Firmar un Convenio entre el Ayuntamiento de Durango y la Asociación A ASOCIACION AKANA con el siguiente texto:

**CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE DURANGO Y LA ASOCIACIÓN AKANA - SERVICIO COMUNITARIO**

**REUNIDOS**: De una parte, Don JULIAN RIOS SANTIAGO, con D.N.I. nº 30.662.165-Z, primer teniente de alcalde del AYUNTAMIENTO DE DURANGO, asistido de la Secretaria General Doña, TERESA OLEAGA LARRINAGA con D.N.I. nº 30.616.524-M, que da fe del acto.

Y de otra, LA ASOCIACIÓN AKANA – SERVICIO COMUNITARIO, con CIF: G-48929665, representada por RICARDO ALZAGA VIZCARRA con D.N.I. nº 15391695-A, en su condición de presidente.

**ACTUAN**: 1er Teniente de Alcalde don JULIÁN



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 13523517237066302400
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

Udalaren izenean eta 1. alkateordea eta Hiritarrak arloko zinegotzi delegatua, horrela agintzen baitu Alkate andreak dekretu bidez onartutako ordezkaritzak (1424 dekretua, 2019ko ekainaren 27koa; BAOn argitaratua 2019/07/11ko 132. zenbakian); TERESA OLEAGA LARRINAGA andreak, Udaleko Idazkari Nagusi moduan eta RICARDO ALZAGA VIZCARRA AKANA ELKARTEA-KOMUNITATE ZERBITZUAren presidente moduan.

RÍOS SANTIAGO, concejal delegado del área de Ciudadanía en virtud de las delegaciones acordadas por la Alcaldesa mediante decreto nº 1424 de fecha 27 de junio de 2019, publicado en el «BOB» número 132 de 11 de julio de 2019; Doña TERESA OLEAGA LARRINAGA, en su calidad de Secretaria General del Ayuntamiento y Don RICARDO ALZAGA VIZCARRA, como presidente de LA ASOCIACIÓN AKANA – SERVICIO COMUNITARIO.

**AITORTU ONDOREN** batak besteari behar besteko gaitasun juridikoa hitzarmena aurrera eramateko.

**RECONOCIÉNDOSE** las capacidades jurídica y de obrar necesarias y suficientes para el presente convenio, en la calidad con que actúan.

**ADIERAZTEN DUTE:**

I.- AKANA ELKARTEA - KOMUNITATE ZERBITZUAren estatutuetan honako helburuak agertzen dira: "Pertsonei laguntzea, bai bere adinagatik edo bere egoera fisikoa edo mentalagatik nor bere kabuz ezin dena zaindu". "Gizarte zerbitzu bat eman, komunitate-laguntza eta gizarteratzeari zuzenduta".

Xede horretara iristeko, adimen urritasuna duten helduentzako eguneko arreta zerbitzua ematen dute Durangon.

II.- Durangoko Udalak "AKANA" ELKARTEArekin lankidetzan jardun gura du. Hartara, dirulaguntza emango dio ADIMEN URRITASUNA DUTEN HELDUENTZAKO EGUNEKO ARRETA programa aurrera eramateko. Programa hori 2021ko irailetik abendura arte garatuko da.

**MANIFIESTAN:**

I.- Que LA ASOCIACIÓN AKANA – SERVICIO COMUNITARIO ", tiene como fin, recogido en sus estatutos, " La ayuda a personas, que bien por su edad o condición física o mental no pueden valerse por sí mismas ". "Prestar un servicio social encaminado a la ayuda comunitaria y a la integración comunitaria ".

Para la consecución de dicho fin la asociación Akana desarrolla el servicio de atención diurna para adultos con discapacidad intelectual en el municipio de Durango.

II.- Que el Ayuntamiento de Durango desea colaboración con LA ASOCIACIÓN AKANA, posibilitando una subvención económica para el desarrollo del programa ATENCION DIURNA PARA PERSONAS ADULTAS CON DISACAPACIDAD INTELECTUAL. Programa que se desarrollará de septiembre a diciembre de 2021.

**BETEBEHARRAK:**

**DURANGOKO UDALAK HARTZEN DUEN KONPROMISOA**.- Durangoko Udalak 10.000,00 (HAMAR MILA) euroko diru-laguntza emango dio "AKANA ELKARTEA -KOMUNITATE ZERBITZUAri". Ordainketa 51.2311.48102 diru-partidaren kargura egingo da. Dirulaguntza honek xede izaera izango du, eta aipatutako elkarteak Durangoko Udalarekin hartuko dituen konpromisoei aurre egiteko erabiliko da.

**"AKANA ELKARTEA- KOMUNITATE ZERBITZUAK" HARTZEN DUEN KONPROMISOA.**

Ezgaitasun intelektuala duten helduentzako eguneko

**CLÁUSULAS:**

**COMPROMISO ASUMIDO POR EL AYUNTAMIENTO DE DURANGO**.- El Ayuntamiento de Durango subvencionará con 10.000,00 (DIEZ MIL) euros a LA ASOCIACIÓN AKANA – SERVICIO COMUNITARIO de Durango, con cargo a la partida 51.2311.48102, subvención de carácter finalista que será destinada por la misma al cumplimiento de los compromisos que ésta asuma frente al Ayuntamiento de Durango, que se describen en la cláusula siguiente.

**COMPROMISO ASUMIDO POR LA ASOCIACIÓN AKANA- SERVICIO COMUNITARIO.**

Desarrollar el programa de atención diurna para



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 13523517237066302400
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

arreta zerbitzu programa garatzea, elkarteak aurkeztutako memorian adierazten duen bezala:

- Programa astelehenetik ostirala arte emango da 9:30etik 16:30ak arte.
- Programak jantoki zerbitzua izango du, eskatzen dutenentzako.
- Lankidetzan aritzea gizarte-ekintza arloarekin desgaitasuna duten pertsonen integrazioa sustatzeko helburuz garatuko diren programetan.

- Elkarteak desgaitasun gaietan udalari aholku ematea, eskatzen zaion aldiro.
- Hasieran aurkeztutako proiektuan aldaketak egiteko asmorik izanez gero, udalari jakinaraztea.

- Gastuak justifikatzea, aktibitatea ematen den denboraldiko fakturen bitartez, eta formatu digitalean aurkeztuko dira (.pdf).
- Jardueraren memoria zehatza aurkeztea, jarduera bukatzen duenetik hurrengo bi hilabetetan.

- Ekintzak udalak diruz lagundutakoak direla argiro uztea agerian, elkarteak programaren berri zabaltzeko darabilen informazio grafiko, idatzi eta entzuteko guztietan.

**DIRU-LAGUNTZA ORDAINTZEKO ERA.**

Durangoko Udalak honela ordainduko dio AKANA elkarteari %80a (8.000,00) hitzarmena sinatzen den hilabetearen azken egunean ordainduko da. Gainerako %20a (2.000,00€), diru-laguntza eman izanagatiko helburua bete ondoren eta gastua justifikatu ostean ordainduko da. Justifikatzerako orduan hitzarmen honetan hartutako konpromisoak bete direnei buruzko dokumentazio egiaztagarria ere aurkeztu behar da. Ez da fidantzarik jarri behar izango administrazioak aurreraturiko diru-kopuruarengatik.

**IRAUPENA.**- Hitzarmena bertan behera geldituko da 2021eko abenduaren 31ra arte.

**HITZARMENA BERTAN BEHERA UZTEA.**- AKANA ELKARTEA - KOMUNITATE ZERBI- TZUAk hartu dituen konpromisoak betetzen ez badira, lankidetza-hitzarmena bertan behera geldituko da, eta jasotako dirulaguntza itzuli beharko da, halaxe ezartzen baitute dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 41etik 43ra arteko artikuluek.

personas adultas con discapacidad intelectual tal y como se recoge en la memoria presentada por la mencionada asociación :

- El programa se desarrollará de lunes a viernes en horario de 9,30 a 16,30h.
- El programa incluye el servicio de comedor para los usuarios que lo demanden.
- Colaborar con el área de acción social en los diferentes programas que se desarrollen cuya finalidad sea el fomento de la inclusión de las personas con discapacidad.
- Asesorar a la entidad municipal, si se solicita en materia de discapacidad.
-Comunicar al Ayuntamiento las modificaciones, que se pretenda realizar en el proyecto inicialmente presentado.
- Justificación de gastos mediante facturas correspondientes al periodo de la actividad, que se presentarán en formato digital (.pdf).
- Presentación de la memoria detallada de su actividad dentro de los dos meses siguientes a la finalización de la activad.
- Hacer constar de forma clara que la actividad está subvencionada por el Ayuntamiento de Durango, en toda la información gráfica, escrita y sonora que la asociación realice con motivo del programa o en su difusión.

**FORMA DE PAGO DE LA SUBVENCIÓN.**

El pago de la subvención por el Ayuntamiento de Durango a la asociación AKANA se realizará de la forma siguiente: 80% (8.000,00€) el último día del mes de la firma del Convenio. El 20% (2.000,00€) restante se abonará tras el cumplimiento de la finalidad para la que se concedió la subvención y una vez justificado el gasto, así como la documentación acreditativa de la materialización de los compromisos adquiridos en este Convenio. No será necesario afianzar los importes adelantados por la Administración.

**DURACIÓN.**- El presente Convenio quedará extinguido el 31 de diciembre de 2021.

**EXTINCIÓN.**- El incumplimiento de los compromisos adquiridos por LA ASOCIACIÓN AKANA – SERVICIOS COMUNITARIOS producirá, además de la extinción inmediata del Convenio de Colaboración, la obligación de reintegrar el importe de la subvención, total o parcialmente, de acuerdo con lo establecido en los artículos 41 a 43 de la Ley 38/2.003, General de Subvenciones.



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 13523517237066302400
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

**BATERAGARRITASUNA.**- Diru-laguntza hau bateragarria da beste erakunde publiko edo pribatuetatik jaso daitekeenekin. Nolanahi ere, eta gain-finantzaketa izan ez dadin, onuradunak, gastua justifikatzerako orduan, beste erakundeetatik jaso izan dituen dirulaguntzen egiaztagiriak aurkeztu behar ditu.

**COMPATIBILIDAD.**- La presente subvención es compatible con otras procedentes de cualquier organismo público o privado. No obstante, y en aras de que no haya sobrefinanciación, el beneficiario, en el momento de proceder a la justificación del gasto, deberá presentar documentación acreditativa de las subvenciones percibidas a través de otros organismos.

**ARAUDI OSAGARRIA.**- Hitzarmen izendun hau Durangoko Udalak 2020ko abenduaren 22ko osoko bilkuran onartutako 2021eko diru-laguntzen plan estrategikoan dago jasota.

**NORMATIVA COMPLEMENTARIA.**- El presente convenio nominativo está recogido en el Plan Estratégico de Subvenciones 2021 aprobado en pleno por el Ayuntamiento de Durango el 22 de diciembre de 2020.

Hitzarmen honek ezartzen ez duenari dagokionez, honako lege testuak hartuko dira aintzat: Durangoko Udalaren dirulaguntzak eta bestelako laguntzak arautzen dituen Ordenantza; dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra; 887/2006 Errege Dekretua eta toki erregimeneko araudi bateragarria.

En lo no dispuesto en este Convenio se estará a lo indicado en los siguientes textos legales: Ordenanza reguladora de subvenciones y ayudas del Ayuntamiento de Durango; Ley 38/2003 General de Subvenciones; RD 887/2006 y normativa de régimen local concordante.

2. Gastua onartzea ADO fasean eta hitzarmenean aipatzen den kopuru honegatik: 10.000 Euro. Ordainketa 51-2311-48102 diru-partidaren kargura egingo da.

2. Aprobar el gasto en fase ADO por el importe del Convenio, y que asciende a 10.000 Euros, con cargo a la partida 51-2311-48102.

3. Ordainketa hitzarmenean aipatzen den eran egingo da.

3. Que los pagos del Convenio se realicen de acuerdo con lo establecido en el propio Convenio.

4. Hitzartutako dirulaguntzaren onuradunaren betebeharrei dagokienez, dirulaguntza justifikatzeko epeei dagokienez eta justifikatu gabeko diru-kopuruak itzultzeari dagokienez, hitzarmenean ezartzen dena hartuko da kontuan eta, halaber, dirulaguntzen ordenantza arautzaileak zehazten duena.

4. Que en materia de obligaciones del beneficiario de la subvención conveniada, de plazos para justificar la subvención y en materia de reintegros de cantidades no justificadas se estará se estará a lo indicado en el propio Convenio y, supletoriamente, en lo indicado en la mencionada Ordenanza Reguladora de subvenciones.

Alkateorde delegatuak agindu eta izenpetzen du, eta nik, Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek, egiaztatu egiten dut.

Lo manda y firma el Teniente de Alcalde delegado, de todo lo cual yo, Secretaria General de la Corporación, doy fe.



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 13523517237066302400
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

| | |
|---|---|
| Julián Ríos Santiago | Maria Teresa Oleaga Larrinaga |
| 1. alkateordea - 1º Teniente Alcalde | Idazkaria - Secretaria |



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 13523517237066302400
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**